

EUSKARA ERE EMAN

Euskararen transmisioaren gaineko kontzientziazio eta sentsibilizazio
saioa Buruntzaldeko aita-amagaientzat

2005eko udazkena

Nahikari Gabilondo
Paula Kasares

Haurdun zaudete, haur esperoan, eta honez gero duela zenbait hilabete badakizue zuen barnean umekia osatzen eta handitzen ari dela. Eta honez gero ohitu zarete bata bestearekin: zuek barnean daramazuen umearekin –edo umeeekin– eta umea zuekin. Honez gero hizketan hasi zatzaizkiote, ez da hala? Eta ziur pentsamenduak ez ezik hitzak ere egiten dizkiozuela: mugitu dela, ostikoa eman duela, zer ote duen,... Eta honez gero hasiak zarete zeuen umeari hizkuntza ematen.

Hizkuntza gure bizitzan

Hizkuntza da gure bizitzan, garen lehen momentutik, gure barnean eta inguruan dugun ezinbesteko zerbait. Sortu baino lehenago ere hizkuntzaren bidez esaten dizkiogu gauzak haurrari eta haurrak jasotzen ditu, ez izan zalantzarik.

Amaren sabelean geundelarik hasi ginen hizkuntza ikasten, hizkuntza hori ezagutzen eta, amaren ahotsera bezala, haren hizkuntzara, hizkuntza horren soinu eta prosodiara (doinura) ere egiten.

Pentsa ezazue lehen hizkuntza, ama hizkuntza nola ikasi zenuten, berdin dio euskara edo gaztelania izan zenuten. Etxean, ez da hala? egoera afektibo eta

hurbiletan, konfiantzazko eta maitasunezko harremanetan, etxe barnekoetan hasieran, familia zabalean eta auzoko bizitzan gero. Haur batentzako, etxe barneaz gain, familia-ingurua eta komunitate gertua ere badira hizkuntza ikasteko lehen esparrua.

Eta familia eta etxe barneko esparru hori bereziki sakona eta bizipen afektiboetara lotua da. Zer esan nahi dugu horrekin? Oroi zaitezte zein hizkuntzatan esaten zizueten gurasoek -edo ondoan zenuten helduek- gabon ohera joaterakoan, edo zein hizkuntzatan kontatzen zizkizueten ipuinak, edo zein hizkuntzatan arintzen zizueten mina kaskarreko bat hartuta, eta zein hizkuntzatan egiten zizueten errieta barrabaskeriaren bat egiten zenutenean.

Esan dizuegu hizkuntza etxean ikas daitekeela egunero harreman horretan, komunikazio horretan, edo baita eskolan ere, inguruko haurrekin eta irakaslearekin harremanetan. Beraz, jakin behar duzue hizkuntza pertsonekin harremanetan eta elkarreragitean ikasten dugula, zentzua duten egoera komunikatiboetan. Kontatuko dizuet Harris antropologoak bildutako pasadizo bat: Estatu Batuetako bi gorrek, ezer aditzen ez zuten senar-emazteak, umea izan zuten. Umeak ongi aditzen zuen, baina arnasa hartzeko arazo batzuk zituen eta medikuak haurra etxetik ez ateratzeko esan zien. Beraz, haur horrek bere guraso gorrekin eta gurasoen lagun gorrekin soilik zituen harremanak. Gurasoek, haurrak hizkuntza (ingelese) ikas zezan, egunean zenbait orduz uzten zuten telebistaren aurrean. Haurrak 3 urte bete zituenean, ez zuen hitz-erdia ere esaten ingelesez; gorren zeinu bidezko hizkuntza, berriz, normaltasun osoz erabiltzen zuen.

Horrek zer esaten digu hizkuntza ikasteko egoeraren eta baldintzen gainean? Hizkuntza pertsonekin harremanetan, bizipenen bidez ikasten dugula, guretzako esanahia duten eta esku hartzen dugun egoeretan, eta ez soilik hartzaile garen egoeretan.

Hizkuntzak munduan

Hizkuntza komunitatean ikasten da; gizatalde batean, pertsonen arteko harremanetan ikasten dela esan dugu. Baina ez dugu pentsatu behar hizkuntza bakarria izatea dela egoera arrunta eta elebitasuna edo eleaniztasuna salbuespena.

Kontuan hartzen badugu munduan 6000 hizkuntza inguru mintzatzen direla eta munduaren lurralde politikoki 200 bat estatutan banatuta daudela, estatu bakoitzari batez beste dagokion hizkuntza kopuruak argi erakusten du munduko estaturik gehien-gehienak eleanitzak direla, hau da, haien mugen barnealdean historikoki hainbat hizkuntza-komunitate bizi izan direla eta jendeak, euren ez ezik, hizkuntza bat baino gehiago jakin eta erabili ohi dituela bizitzeko, harreman ekonomikoak izateko eta familia kulturalki mistoak zirelako. Beraz, gurea bezalako egoerak, bi hizkuntza elkarren ondoan bizitzea, gauza normala izan da historian, eta orain ere hala da munduko beste hainbat lekutan.

Goazen mundu globalizatuan, bestalde, adituek diote etorkizunean elebakarra izatea gero eta arraroagoa izango dela, eta elebiduna (eleaniztuna) izatea, berriz, ahikoa. Egun elebiduna (eleanitza) izateak abantailak baizik ez ditu:

- Komunikatzeko abantailak (familia mistoen kasuan, familiakide guztiekin mintzatu ahal izatea bakoitzaren hizkuntzan, gure gizartearen bi hizkuntzak jakiteagatik batean zein bestean aritu ahal izatea, bi hizkuntzetan irakurri eta idatzi ahal izatea, nazioarteko hizkuntza bat jakinez gero, abantailak bidaiatzeko, lanean nazioarteko haremanak izateko,...)
- Abantaila kulturalak (kultura-aniztasunarekin sentiberagoa izatea, ezberdintasunaren aurrean errespeto handiagoa izatea,...).
- Pentsamenduaren edo adimenaren garapenerako abantailak (pentsatzeko abantailak, sormena, sentiberatasuna komunikazioan,...).
- Nortasunean abantailak (identitatean ziurtasuna, autoestimua,...).

- Abantailak eskolan (ikaste-prozesuan arrakasta handiagoa izateko aukerak, hirugarren hizkuntza bat ikasteko erraztasuna,...).
- Abantaila ekonomikoak (lana aurkitzeko momentuan...).

Bi hizkuntza dituen gizartea

Elebitasunaz ari gara, bi hizkuntza jakiteaz, edo, nolabait esateko, bi hizkuntza elkarren ondoan bizitzeaz. Baina bi hizkuntza elkarren ondoan bizi direla esateak ez du esan nahi jende guztia bi hizkuntza horietaz baliatzen dela modu berean, ezta gizarte horretako familia guztietan bi hizkuntza solasten direnik ere –nahiz eta senide guztiak elebidunak izan-. Gizarte elebidunetan hizkuntza-taldeak daude, ama hizkuntza bat edo bestea duten pertsonen osatuak, nahiz eta denak elebidunak izan. Eta urteekin elebidunak eta eleaniztunak izatera iritsi bagara ere, denok ez dugu euskara eta gaztelania etxean ikasi. Gero, agian eskolan ikasi genuen euskara, edo, gaztelania euskara eta gero,... Dena den, eta lehenago esan dugun moduan, etxea, familia-hizkuntza ikasteko lehen esparrua bada ere, ez da esparru bakarra. Ideia horren inguruan ariko natzaizue orain, gizartean ditugun hizkuntzak ikasteko bideak, bide horien ezaugarriak eta baten eta bestearen abantailak.

Baina lehenago pentsa dezagun gizartean ditugun bi hizkuntzak ez daudela maila berean. Gipuzkoan, herritarren erdia baino gutxiagok baino ez daki euskara. Gaztelaniak indarra du: indarra gizartean, hedabideetan, herriar guzietan dakite, ez da izaten arazorik nonahi, zernahiz eta nornahirekin gaztelaniaz egiteko. Bizi garen inguruan gure hurrek ez dute arazorik izango gaztelania ikasteko eta erabiltzeko, etxean euskara baino irakasten ez badiegu ere. Hori garbi izan behar dugu.

Hortik aurrera, jakin behar duzue zuen eskuetan dagoela zeuen haurra zer hiztun mota izango den. Eta momentu honetatik hasiak zarete erabakiak hartzen; honez gero hasiak zarete prestatzen haurra ekarriko duzuen inguruaren hizkuntza-ezaugarriak, izan ere, barnean daramazuen umeari hitz egiten diozue. Eta hamaika

erabaki gehiago hartu beharko dituzue: zein hizkuntzatan kontatu ipuinak, zer haurtzain kontratatu, zer haurtzaindegitarra eraman, zein eskolatan sartu, eskolaz kanpoko zein jardueratan matrikulatu,...

Zuek erabakiko duzue zeuen haurra zer hiztun mota izango den. Eta elebiduna izatea nahi baduzue, bizi garen herrian bizi garela, euskara indartu behar diozue gizartean ahulagoa baita.

Hizkuntza ere eman, nork, nola

Zuek zeuen haurrari zein hizkuntzatan egiten diozuen, ez da intimitatean edo esparru pribatuan baino ez eragina duen kontu bat. Bestalde, ez ezazue pentsa zuek eman ezin diozuen ezin izango diola beste inork edo beste ezerk eman. Horretaz ere, gero mintzatuko gara.

Garrantzia du arestian esan dugun hori garbi izatea; hau da, zuen esku dagoela, hein handi batean, zuen haurra euskalduna izango den ala ez, baina horretan ez zaudete bakarrik. Herri batean bizi zarete, komunitate zabal batean, eta, zorionez, familia batek egun hamaika bitarteko eta laguntza ditu bere haurra elebiduna izateko. Hautatzen eta aprobetxatzen jakin behar da.

Beraz, horrekin guztiarekin ulertuko duzuen moduan, esparru pribatua (etxea, familia) funtsezko elementua da, gizabanakoaren eta gizartearen arteko lotura ahalbidetzen duelako eta hainbat balore eta usadio sendotzeko edota ziurtatzeko ezinbesteko gunea delako. Hala ere, transmisioa ezin da arlo pribatuan bakarrik kokatu, arlo publikoan ere garatu beharreko erantzukizunak baititu. Bestalde, transmisioa ez da historian zehar garatutako zerbait soilik, egunero gauzatzen ari den zerbait baizik.

Hori kontuan hartuta, zer alor ditugu hurrei hizkuntza ikasten laguntzen diotenak?

- **Familia:** zuek gurasoak, baina horrez gain, aiton-amonak, izeba-osabak, lehengusu-lehengusinak... Eta zuen baitan erabaki asko daude.
- **Eskola:** haurren hezkuntzaz eta hizkuntzaz arduratzen den erakundea, eta bizi garen tokian bizi garela, haurrak elediduntzeaz ere arduratzen dena, horretarako ikasteredu egokia hautatuta. Esan dugun bezala, elebiduna izatea nahi baduzue, bizi garen herrian bizi garela, euskara indartu behar diozue, gizartean indar txikiagoa baitu. Eta horrek esan nahi du euskaraz eskolatu beharko zenuketela: D ereduan.
- **Komunitatea:** Gizarte jakin bateko haurrek hizkuntza ikastea komunitatearen baitan gertatzen den fenomeno da, eta gizarteak horretarako baldintza, bitarteko eta bideak emango ditu: lege batzuk ditugu euskara ofizial aitortzen dutenak, telebista eta irratiak ditugu, zerbitzu publikoak euskaraz,...

Eta hiru esparru horiek ditugu euskararen egoeran eragina dutenak. Azken hamarkada hauetan euskararen inguruan gauza ugari aldatu dira. Urte gutxitan asko aurreratu da eta orain, atzera begira, zenbait okerrez ohartu gara. Honela dio Koldo Zuazo irakaskleak:

«1960[an] (...) sarri egin ohi zen honako iragarpen hau: Euskara eskolan eta telebistan sartzen denean, betiko salbatuta izango da. Joan dira urteak aurrera, sartu da euskara eskolan eta sartu da euskara telebistan, eta, ostera, ez dago inondik inora ere salbatuta. Orain ohartu gara eskola eta telebista behar-beharrezkoak izan arren, beste osagai batzuk ere badirela. Orain ohartu gara familia eta lagunartea, esate baterako, ezinbesteko ardatzak direla. Orain ohartu gara, hizkuntzaren ‘transmisioa’, belaunaldi batzuen eta besteen arteko hizkuntza lotura sendotzea eta estutzea, nahitaezkoa dugula. Bazen begiak zabaltzeko garaia!» (Zuazo; 2001, 131 or.)

Hizkuntza baten bizitza familia bidezko transmisioan oinarritzen da. Gurasoek seme-alabei hizkuntza irakasten dieten bitartean hizkuntza biziko da. Nahiz eta telebistarik ez izan, nahiz eta unibertsitaterik ez izan. Eta alderantziz ere, telebista eta unibertsitatea dituen hizkuntza batek bere erreproduktzio naturalaren mekanismoak, hau da, familia bidezko transmisioa, eteten badu, hizkuntza horrek, lehenago edo beranduago, hizkuntza bizia izateari utziko dio.

Latina, adibidez; jende askok daki latina, areago ere, latina estatu bateko hizkuntza ofiziala da. Badakizue zein estatutako hizkuntza ofiziala den? Vatikanokoa, eta han bizi diren apaizek eta mojek ongi dakite, denek eskoletan ikasi zuten, eta eure artean erabiltzen dute. Baina latina ez da hizkuntza bizia, zer falta zaio? Hain zuzen ere, gurasoek euren umeei irakastea. Suerte txarra latinarentzako, umerik sortzen ez den estatu bateko hizkuntza ofiziala izatea.

Hizkuntzaren transmisioaz ari gara beraz; hizkuntzaren familia bidezko transmisioan. Hizkuntza baten familia bidezko transmisio hori aztertzeke orduan, hainbat abiapuntu izan genitzake, azterketari eman nahi diogun norabidearen arabera:

- Zerk baldintzatzen du hizkuntza baten familia bidezko transmisioa?
- Zer garrantzi du gurasoek hizkuntzaz duten ezagutzak?
- Noiz hasten da transmisioa? Noiz haurraren ikasteko gaitasuna?

Galdera horietako edozein har genezake abiapuntu gisa, baina, familia bidezko transmisioa behar bezala azaltzeko, ezinbestekoa da erantzun guztiak behar bezala uztartzea.

Ezer baino lehen, arestian esan dizuegu hizkuntza transmititu egiten dela, gurasoengandik seme-alabengana; eta, hori gertatzen den bitartean, ziurtatua dago hizkuntza baten iraupena. Familia bidezko jarraipena eteten denean, hizkuntzak hiztunak sortzeko duen berezko mekanismoa galdu egiten du. Beraz, hizkuntzaren azken gotorleku funtzionala da familia bidezko jarraipena, funtsezko elementua gainera, gizabanakoaren eta gizartearen arteko lotura ahalbidetzen duelako eta hainbat balore eta usadio sendotzeko edota ziurtatzeko ezinbesteko gunea delako. Hizkuntza familia bidez jasotzea hizkuntzak ikasteko modurik unibertsalena, naturalena, aberatsena, merkeena eta eragingarriena da.

- *Unibertsala*, ia hizkuntza guztiak transmititzen diren era delako.
- *Naturala*, komunikatzen ikasteko modurik primarioena eta sinpleena delako.

- *Aberatsa*, hizkuntza jasotzen delako, ahozkotasanari dagokionez, bere forma eta erregistrorik afektiboenekin eta informalenekin.
- *Merkea*, diruari dagokionez, ez duelako kosturik.
- *Eragingarria*, hizkuntza-gaitasunean eta hizkuntza-portaeretan gehien eragiten duen faktoreetako bat delako.

Euskara funtzioak galduz joan da, eta familia bidezko jarraipena ere higatuz joan da. Adibidez, ume askok ez dute euskararen ezagutza gurasoen transmisio bidez jasotzen –etxe horietan ez dira elkarrizketak, maitasun-hitzak, ipuinak, abestiak, errietak... euskaraz bizi–, eskolaren bidez baizik. Hori horrela, transmisioa ezin da prozesu natural bati soilik lotua ikusi, prozesu kulturalarekin ere lotua baitago.

Beraz, ohartuko zineten moduan, transmisioa garrantzitsua da oso, baina erabilerak ere garrantzi berezia du. Euskararen erabileran gehien eragiten duen pertsona-mailako faktorea elebitasun-mota da. Elebitasun-motaren baldintzatzaile nagusia ama-hizkuntza da, eta, hortaz, ama-hizkuntza ziurtatzeak euskararen familia bidezko jarraipena ziurtatzea eskatzen du.

Euskararen familia bidezko jarraipenak, beraz, lehentasuna du euskararen erabileraren berreskuratze-prozesuan, bai hiztun-galera eteteko, bai hiztun-irabazia finkatzeko.

Hizkuntza batean hitz egiteko daukagun erraztasunak eragin handia du hizkuntza horren erabileran. Oro har, erraz eta eroso sentitzen garen hizkuntzan hitz egiten dugu. Eta erraztasun hori etxeak ematen du, ama-hizkuntzak eta familia-hizkuntzak.

Hainbat ikerketak erakutsi du familia bidezko transmisioa eta haren ondoriozko hizkuntzaren ezagutza ezberdinak direla adin-tarte bakoitzean. Besteak beste, horretarako faktore nagusien artean dago gurasoen euskararen ezagutza-maila. Gurasoen ezagutza-maila edo tipologia oinarritzko faktoretzat hartzen da. Haiek ez badakite, ezin dute transmititu. Eta zenbat eta hobeto jakin,

orduan eta hobeto transmititzen dute. Hori bereziki garrantzitsua da une honetan zuentzat. Adibidez, euskaraz ondo dakiena gurasoetako bat denean, transmisioak huts egiten du. Bestalde, transmisioak hobeto funtzionatzen du amaren bidez egin denean (% 17) aitaren bidez egin denean baino (% 11,7). Dena den, gurasoen ezagutza-maila ezinbesteko baldintza den arren, ez da bakarra, eta, agian, ezta indarrik gehien duena ere. Izan ere, tipologia beraren barruan sailka daitezkeen gurasoek ez dute neurri berean transmititzen hizkuntza adin-tarte eta gizarte-giro guztietan. Beraz, neurri handi batean, hizkuntza baten biziraupena gizartean hizkuntza horrekiko dagoen aldeko edo kontrako giroaren baitan dago.

Orain arteko guztia esanda, eta euskararen kasua soilik aipatu badizuet ere, gaia orokortuz, azpimarragarria da hizkuntza gutxituen kasuan familia bidezko transmisioa izan dela hizkuntzaren biziraupena ahalbidetu duen erreproduktio-mekanismo nagusia edo bakarra.

Etengabe transmisioak duen garrantziaz ari natzaizue saio honetan. Baina lehen aipatu dizuet familia ez dela haurrak hizkuntza ikasteko duen bide edo esparru bakarra. Beste modu batera esanda, esan beharra dago haurren errealitatea nagusiki hiru esparrutan banatua dagoela: familia, eskola, eta familiaz eta eskolaz kanpo suertatzen den esparrua. Halaber, ezin zaio eskolari soilik eskatu hizkuntza ikasteko prozesuaren erantzukizuna, gizarteko eta familiako faktoreek ere garrantzi handia baitute.

Haur baten errealitatearen osaera nabarmena da: 0-3 urte artean, errealitate hori ia erabat familiak osatzen du. 3 urtetik aurrera, familiaren garrantzia gutxitzen eta eskolarena handitzen hasten da. Etxeko hizkuntzan eragiteko ezinbestekoa da haurraren adina (gurasogaietan izan ezik, noski), kontuan hartzea.

Haurraren adina edozein dela ere lor daiteke euskara ikastea, noski, baina, bikote-hizkuntza nahiz familia-hizkuntza bihurtzea nekezagoa izango da haurrak 5 urtetik gora baditu.

Dena den, eta 0-3 urte arteko tarte hori aipatu dugun arren, bada beste datu interesgarri bat, haurra hizkuntzaz jabetzen hasten den uneari dagokiona: jende

gehienaren ustez, haurra jaio eta berehala hasten da hizkuntza bat ikasten. Hainbat ikerketak frogatu du, ordea, hori ez dela zuzena. Alegia, haurrak jaiotzerako eskuratzen dituela bere lehenengo gaitasun linguistikoak. Hori da saio honen hasieran esan dizuedan lehenengo gauzatariko bat. Amaren hizkuntza ezagutzen du, hizkuntzaren doinuarekin. Era berean, aipagarria da munduko haur jaioberri guztiek, jaio diren lekuan jaio direla ere, kontraste guztiak antzematen dituztela, guk helduok ez bezala. Hau da: Japonian eta Txinan, adibidez, pertsona helduek ez dituzte *r* eta *l* hotsak bereizten. Ez dute horiek bereizteko gaitasunik. Bertako haur jaioberriek, aldiz, arazorik gabe bereizten dituzte fonema guztiak bizitzaren hasieran. Pertsonak gerora hasten gara bereizketarako gaitasuna galtzen, eta gure hizkuntzari dagozkion egiturak egiten. Era berean, eta arrazoi berarengatik, munduko haur guztiek egiten dituzten lehen hotsak berdinak izan ohi dira: *ma*, *ba*, *pa*... Gerora hasten dira beren hizkuntzari dagozkion hotsak egiten. Haur euskaldun batek, adibidez, berandu ikasiko ditu *rr*, *s*, *z* eta antzeko hotsak, munduan oso ohikoak ez direnak, alegia. Hau da, etxean entzundako hotsak eta, beraz, hizkuntza, izango da bereganatuko duena, hasieran zuen bereizketarako gaitasun oro galduz.

Era berean, gurasoen motibazioak garrantzi izugarria du haurrak hizkuntza ikas dezan.

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa ulertzeko garrantzitsua da, halaber, familiak osatzen duen harreman-sarea aztertzea. Sare horretan lau urrats daude, eta urrats horiekin berehala identifikatuko zarete:

- Harreman-sare desberdinetako bi pertsonaren lehen harremana.
- Bi pertsona horiek sortutako harreman-sare berria (bikotea).
- Bikote horren ondorengoa (haurra).
- Bigarren haurra.

Familia bat denboraren joan-etorrian eraikitzen, osatzen, egokitzen eta moldatzen doan sare bat da eta harreman-sare horretan hizkuntza ekologia dago,

ohitura batzuk, jokamolde batzuk. Ohitura horiek nukleoaren sorreran finkatzen dira (bikotea bera osatzen denetik aurrera) eta bere horretan irauten dute, kide horiek aldaketarako jarrera kontzientea hartzen ez badute, behintzat. Zuek ere ohartuko zineten horretan honez gero, lehen zenuten harreman-sarea eta bizimodua eta orain duzuen konparatzen badituzue. Aldaketarako beti egon daiteke aukera, eta ezagutzen ditugu aldaketa hori beranduago egin duten bikoteak ere, baina seme-alabak zenbat eta txikiagoak izan, orduan eta errazagoak dira aldaketak. Edota beste modu batera esanda, oso nekeza da hizkuntza ohiturak aldatzea behin seme-alabak 5-6 urtetik aurrera dituztenean.

Harreman-sare berri horiek, bikote horiek, bikote euskaldunak, erdaldunak edo mistoak izan daitezke. Horrek baldintzatuko du, neurri handi batean, familia bidezko transmisioa. Izan ere, bikote horren familia-hizkuntza desberdina izango da bikotearen arabera, eta beren haurraren ama-hizkuntza ere bai. Hala, familia-hizkuntzak baldintzatuko du haurraren ama-hizkuntzaren nolakotasuna. Familia-hizkuntza, berriz, bikote hizkuntzak erabakiko du, eta hori, aldi berean, bikotekideen ama-hizkuntzak. Kontzeptu hauek maiz baliokideak balira bezala erabiltzen dira, baina ez da hala eta komeni da bereiztea, bata ala bestea erabiltzen dugunean zertaz ari garen jakin dezagun.

- **Bikote-hizkuntza:** guraso direnek edo izan daitezkeenek beren artean komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza. Alegia, zuek zeuen artean erabiltzen duzuen.
- **Ama-hizkuntza:** haurrak (amarengandik edota aitarengandik) jasotzen duen lehen hizkuntza.
- **Familia hizkuntza:** familiako kideek beren artean komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza.

Hiru kontzeptu horiek kontuan hartuta, familia baten hizkuntza-egoeraren azterketa egin nahiko bagenu, egoera desberdinekin egingo genuke topo, hiru kontzeptu horiek desberdinak eta bereizgarriak direnaren lekuko.

Adibide batzuk jartzearen: gerta daiteke bikote-hizkuntza gaztelania izatea (bietako batek euskaraz ez dakielako), ama-hizkuntza euskara ere izatea (dakienak euskaraz egiten diolako haurrari) eta familiako hizkuntza euskara ez izatea, kide batek ez dakielako. Gerta daiteke, halaber, kide guztiek jakitea euskaraz, eta ama-hizkuntza euskara izatea baina familiako hizkuntza euskara ez izatea, bikote-hizkuntza gaztelania delako ohituragatik, erraztasun ezagatik edota beste arrazoiren batengatik.

Egingarri diren hainbat sailkapenetan aukera eginda, bost multzo hauetan sailkatuko ditugu familiak:

Haurra(k) duten / dituzten familiak

- a) Gurasoek euskara badakite eta erabiltzen dute.
- b) Gurasoek euskara badakite baina ez dute erabiltzen.
- c) Gurasoetako batek ez daki eta, beraz, ez dute erabiltzen.
- d) Gurasoek ez dakite eta, beraz, ez dute erabiltzen.

Gure inguruan b) motako familiak ugartzen ari dira, besteak beste, eskola bidez euskaldundutako gazteak ari direlako beren familiak osatzen. Asko eta asko erdal elebidunak dira, gaztelaniaz euskaraz baino erraztasun handiagoa duten elebidunak. b) motako familien kasuan, bikotekideek beren artean aritzeko dituzten hizkuntza ohiturak aldatzeak –eta euskaraz egiteak- ekarriko luke euskara haurraren ama hizkuntza eta familia horren hizkuntza izan ahal izatea. Horretarako, gurasoek familiaren hizkuntzaz eta haurren lehen hizkuntzaz gogoeta egin eta hizkuntza transmisioaren inguruan aldaketa egiteko erabaki kontzientea hartu beharko lukete. Beste gauzak bezala, familia baten -nolabait esateko- *elkarbizitza linguistikoa* planifikatu eta alda daiteke baina horretarako gurasogaien artean gai honen inguruko komunikazio, eztabaida, gogoeta eta erabakiak behar dira.

Beraz, hori guztia aipatu ondoren, guraso askoren galdera, beren ama-hizkuntza edozein delarik ere, izan liteke: *Zer egin dezaket nik?*

Zer egin dezaket nik?

Guraso biak euskaldunak bagara...

- Bikote batzuek familia proiektuan sortu nahi duten *elkarbizitza linguistikoa* adostua dute eta garbi erabakia. Ez kasu guztietan ordea. Ongi dago bikote batek umeei eman nahi dien eredu linguistikoaz hitz egitea, azken batean, haurren heziketa osoaz ari gara, haurren ziurtasun pertsonalean, identitate kulturean eta gizartearekin izango dituen harremanetan bete-betean eragina izango duen zerbaitez ari gara.
- Gurasoek euskara etxeko hizkuntza, hau da familia horren hizkuntza izango dela ziur dezakete, eta horrekin haurren ama hizkuntza izango dela bermatu.
- Gurasoen euskara eredia da haurrentzako, kalitatean nola erabilera-portaeretan. “*Zer ikusi, hura ikasi*” dio esaerak. Haurrarekin beti euskaraz hitz egiteaz gain, ez ezazue euskaraz umearekin bakarrik egin, bestela umeak jokaera hori errepikatuko du lehenago edo beranduago. Komeni da haurrari euskararen baliogarritasuna gizarte-funtzio guztietan agertu, ez hari hitz egiteko soilik. Bikotekideen arteko harremanak euskaraz egiten badituzue, haurrak ere euskaraz egiteko ohitura finkatuko du, seguruenik.
- Saia zaitetzte zuen euskara hobetzen, ahoz nola idatziz, haurrak antzemango du eta zuek ere eskertuko duzue.
- Haurraren hizkuntza aberasteaz arduratu eta eskolaren zeregina osatu: aisialdia (eskolaz kanpokoak, kirola, musika-eskola, katekesia,...) eta euskarazko kultura-produktuak (jokoak, liburuak, aldizkariak, bideoak, CD-Romak, DVDak...)

- Ohitura har ezazue famili eta etxe-giroan zuen eguneroko zereginetan euskara normal erabiltzeko; euskarazko prentsa eta aldizkariak irakurri, ikusentzunezko euskarazko produktuak kontsumitu, etxeko paperak euskaraz idatzi, erosketak euskaraz egin, zuen lagun euskaldunekin euskaraz aritu...

Gurasoetako bakar batek baizik ez badaki...

- Honetan ere aipatu behar dugu bikote batzuek familia proiektuan sortu nahi duten *elkarbizitza linguistikoa* adostua eta garbi erabakia dutela, baina ez dela horrela kasu guztietan. Ongi dago bikote batek umeei eman nahi dien eredu linguistikoaz hitz egitea, azken batean, haurren heziketa osoaz ari gara, haurren ziurtasun pertsonalean, identitate kulturean eta gizartearekin izango dituen harremanetan bete-betean eragina izango duen zerbaitez ari gara.
- Egokia litzateke aurreko gogoetak bikotea euskara dakien gurasoak umeari euskaraz hitz egingo diola garbi ikustera eramanez balu, horrek euskara ere haurraren lehen hizkuntza izango dela bermatuko bailuke.
- Haurraren hizkuntzaz jabetzeko prozesua baloratu, motibatu eta interesa adierazi. Pentsa ezazue haurrarentzat eredu zaretela, hizkuntzaren kalitatean nola erabileran. Egokiena litzateke euskaraz ez dakien bikotekideak ikasiko balu, baina bederen haurrarekin gutxienezko harremana (ipuak irakurri, kanta abestu,...) euskaraz izateko moduko euskara ikastea.

Dice el refrán que “*La palabra convence y el ejemplo arrastra*”. Puede ser un buen resumen que nos indica la importancia de los comportamientos lingüísticos de los padres.

Si además de que el miembro de la pareja que sea euskaldun habla con el niño en euskera, la pareja aprende euskera con un nivel suficiente

como para comunicarte con el niño, se fortalecerá la motivación, la capacitación y el uso del euskera del niño.

- Eskolatzeko garaian elebitasuna ziurtatzen duen eredua hautatu: D eredua.
- Haurraren hizkuntza aberasteaz arduratu eta eskolaren zeregina osatu: aisialdia (eskolaz kanpokoak, kirola, musika-eskola, katekesia,...) eta euskarazko kultura-produktuak (jokoak, liburuak, aldizkariak, bideoak, CD-Romak, DVDak...)

Guraso biek euskaraz ez badakite...

- También una pareja que no sabe euskera puede plantearse la decisión de educar a sus hijos de forma bilingüe. El debate sobre si a los niños se les debe criar en forma monolingüe o bilingüe no es sólo lingüístico, sino que forma parte de la educación integral de los niños. Tiene que ver con la seguridad personal frente a la sociedad, y como miembros de una comunidad que hablan un mismo idioma. Es pues, un debate importante y la decisión que toméis afectará al futuro del niño/a.
- Procurad ofrecer al niño un entorno lo más euskaldun posible (guardería, cuidadores, abuelos, escolarización, actividades extraescolares...).
- No pensés “¡Total, ya aprenderán en la escuela!”. La escolarización en euskera (modelo D) es necesaria pero no es suficiente.
- Motivar y valorar al niño/a en el aprendizaje y el uso del euskera.
- Animaros a aprender euskera. No es imprescindible obtener un título. Un objetivo puede ser el hacerse con un nivel suficiente como para comunicarte con el niño/a, jugar, contarle cuentos, cantarle canciones,...

BIBLIOGRAFIA

ADA, Alma Flor eta BAKER, Colin (2001 [2000]). *Guía para padres y maestros de niños bilingües*. Parent's and teachers' Guides : No 5. UK : Multilingual Matters.

ARRUTI, Iñaki (199?) “Etxetik hasi behar delako” izeneko eskuorria. Lasarte-Oria, Bizker.

SIGUAN, Miquel (2001). *Bilingüismo y lenguas en contacto*. Madrid, Alianza.

ZUAZO, Koldo (2001 [2000]). *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.